

PRENTSA OHARRA

Nazioarteko sinposio bat izango da Cristina Iglesiasen *Hondalea* obraren inaugurazioa dela eta

“Kosta Harritsuak: Geologia, Ekologia, Eskultura” sinposioak helburu du artearen, literaturaren, geologiaren eta ekologiaren arloetako pentsamendua partekatzea, bai horietan bai beste arlo batzuetan adituak direnekin

Sinposioak Hondalea obra testuinguruan jartzeko balio izango du, eta Cristina Iglesiasen Itsasargiaren Etxean egindako lana jendearentzat irekitzeko ate modukoa izango da. Ondo bidez, ekainaren lehen asteburuan irekiko da.

Hondaleak, Cristina Iglesias donostiar eskultoreak Santa Klara Uharteko Itsasargiaren Etxean egin duen artelanak, ekainaren 5eko eta 6ko asteburuan irekiko dizkio lehen aldiz atek jendeari. Inaugurazioaren aurretik, ekainaren 3an eta 4an, **“Kosta Harritsuak: Geologia, Ekologia, Eskultura”** nazioarteko sinposioa izango da, EHUko Udako Ikastaroek eta BBVA Fundazioak antolatutako **Donostia Sustainability Forum**en barruan –Ihoberen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuaren babesa ere badu–.

Iglesiasen obran elkarri lotutako gaiak oinarri hartuta, sinposioak aditu talde bat bilduko du, artearen, literaturaren, geologiaren eta ekologiaren arloko pentsamendua partekatzeko, bi saioetan: bata, ekainaren 3an, arratsaldean, izango da, eta, bestea, ekainaren 4an, goizean, Donostiako Aquariumeko Auditorioan.

Eneko Goia alkateak azpimarratu duenez, “kultur mugari historikoa da hiriarentzat. Cristina Iglesiasen eskuzabaltasunez Donostiari eskaini dion obrak Santa Klara Uharteko Itsasargia nazioarteko erreferentzia artistiko eta kultural bihurtuko du. Sinposioak, gainera, garrantzi handia izango du obrarentzat, haren unibertso osoa testuinguruan jartzeko balio izango baitu”.

Sinposioa hiru aditu hauek elkarrekin zuzenduko dute: **James Lingwood** arte garaikideko aditua –Artangel erakunde artistikoaren zuzendaria eta sortzaileetako bat–, **Adolfo Uriarte** geologo eta ozeanografoa –Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren zuzendaria–, eta **Manuel Soto**, Zelulen Biologiako

katedraduna eta Itsas Biologia eta Bioteknologia Esperimentalen Ikerketa Zentroko zuzendariordea (Plentziako Itsas Estazioa EHU).

Horietaz gain, zientzia-arloko beste hizlari batzuk ere izango dira: **Asier Hilario**, Zumaiako Flyscheko Geoparkeko zuzendaria eta Geologia-ondarean, Geoparkeetan, Geokontserbazioan eta Geoturismoan nazioarteko esperientzia handia duen geologoa; **Carlos Duarte**, BBVA Fundazioaren Jakintzaren Mugak Saria, Kontserbazioaren Ekologia eta Biologia kategorian; **Penelope Curtis**, arte garaikideko aditua, eta **Russel Fergusson**, UCLAkoa (Kaliforniako Los Angeleseko Unibertsitatea) eta Cristina Iglesiasen obra oso ondo ezagutzen duena.

Cristina Iglesias artistak berak ere aktiboki parte hartuko du eztabaidetan. Beste kultur eragile batzuk ere, Iglesiasen obra ondo ezagutzen dutenak, bertaratutako ikusleen parte aktiboa izango dira, hala nola Lynne Cooke, Iwona Blawicz eta Richard Noble, nazioarteko beste aditu batzuen artean.

Informazioa eta izen-ematea

“Kosta Harritsu: Geologia, Ekologia, Eskultura” sinposioa Donostia Sustainability Forumen barruan kokatzen da. Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroek eta BBVA Fundazioak antolatutako forum horrek Ihoberen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuaren babesa ere badu.

Sinposioak modalitate presentziala izango du (COVID-19agatik edukiera mugatua izango da) eta online ere parte hartu ahal izango da, ZOOM plataformaren bidez. Matrikulak 20€ balio izango du pertsona bakoitzeko, eta lotura honen bidez egin daiteke: <https://www.uik.eus/eu/la-costa-rocosa-geologia-ecologia-escultura>.

Hondalea bisitatzea

Itsasargiaren Etxea jendeari irekitzeak aukera emango die herritarrei Iglesiasek sortutako esperientziak gozatzeko. Uhartean edukiera mugatua denez, eta ingurunea ahalik eta gehien zaindu behar denez, bisita erreserbatu beharko da, aldezturik, www.hondalea.eus web orrian. Erreserba eginda, bisita doakoa izango da, eta uharterako itsasontziaren joan-etorriko txartelaren prezioa besterik ez da ordainduko. Itsasontzia kaitik abiatuko da.

Irekiera-egunetik hasita, lehenengo bi asteetan, hau da, ekainaren 5etik 15era, itsasontziko bidaia ere doakoa izango da, Udalaren ekimenez.

Bisitak iraupen mugatua izango du, pertsonen fluxua egun osoan zehar antolatu ahal izateko. Horrela, edukiera kontrolatu ahal izango da, eta hori da bereziki kontuan hartu den alderdia, ingurune naturala zaintzeko asmoz.

Eneko Goiak azpimarratu duenez, *Hondalea* sortzeko prozesu guztian ingurumena hartu da kontuan, eta, horretarako, prozesuaren fase guztietan eskakizun-estandarrik gorenak bete dira.

Hala, Goiak gogorarazi du erreserben eta bisita gidatuen kudeaketa **Cristina Enea Fundazioari** esleitu zaiola, kontserbazioa eta natura obraren, uhartearen eta bi horiek gozatzeko aukeraren erdi-erdian egon daitezen.

Cristina Iglesiasen lana

Donostiako artistak abandonatutako itsasargi bat eraldatu du, Santa Klara uharteko harkaitz azaleratzean kokatua, hiritik hurbil dagoen badiaren erdian, inguru eskultoriko zorabiagarri bat sortzeko. Uharteko arrokan hondoratuta, Cristina Iglesiasen obrak bere forma xurgatzailearen barruan hartzen ditu euskal kostaren ezaugarri diren geologia eta ekologia, eta, aldi berean, uhartea inguratzen duten ur zurrunbilotsuak.

Azken urteotan, Iglesiasek eskultura publikoaren forma berriak sortu ditu, espazio zibikoak eta abandonatutako eraikinak modu berri batean irudikatuz, arkitektura, eskultura eta ura batuz, batez ere Anberes eta Toledoko erdialde historikoetan, bai eta Behe Kaliforniako Cortésen itsasoan urperatutako kokagune batean ere. Donostiako Udalak enkargatua eta azken bost urteotan garatua, Iglesiasen proiektu berria azken urteotako proiektu eskultorikorik garrantzitsuenetako bat izango da, itxura guztien arabera.

Donostia, 2021eko maiatzaren 14a